



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko abenduaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko abenduaren bostean, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : CHAMALBIDE Corinne, GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 1a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 1a

### **7. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BATEN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA**

*(4.1.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio Eguberriko askariaren karietara Arrosako eskola publikoko haurrak Ortzaizera garraiatzeko denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garraioa 2023ko martxoaren 22an egingen da, ostiralarekin, 14:30etatik 16:30ak arte.

Enplegua 2023ko abenduaren 22ko egunarentzat sortuko da.

Lan denbora bi orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jardura emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

- **ERABAKI DU** - 2023ko abenduaren 22rako, denbora ez osoko teknikari laguntzaile

lanpostu ez iraunkorra sortzea, 2 oreneko iraupeneko,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko.
- **ONARTU DITU**, Auzapezaren proposamen guziak.
- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.  
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko abenduaren 5ean

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/12/22an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/12/22an.